



## Bittor Kapanaga

*Zenon Uriguen, Pasiotarra*

**OTSANDIO** Bizkaiko erri eder onen ize-na “otso-andi”tik datorrela dirudi. Beraz otsoa agertzen da udal etxeko armarrarian. Otsandio XIII garren mendean eraikia izan zan. 1936an, guda zitalaren zoritxarrez, erria jaiak ospatzen pozez beterik zegoala, bonbardaketaren erasoaz Santa Marina eliza ta etxeak triskatuak izan ziran ta lagun asko il edo zaurituak.

Otxandioko erriaren plazan oroitgallu bat ikusten dogu bere seme jator eta ospetsuen omenez eraikia: Felipe Arrese eta Beitia eta Bittor Kapanaga. Bai, erri onetan jaioa dogu Bittor Kapanaga, 1925 urtean. Bittor gaztetatik sartu zan Orden de Agustinos Recolectos Eibarko ikastetxean. Emen asiko da Bittorrentzat oraiña eta etorkizuna. Jatorriz da mutil argi

eta burutsua eta ikasteak egiteko ikas-miña, joera eta zaletasuna erakusten dau. Bere ikasketak ez dauke mugarririk. Bai, euskera ta erdera, latin, euskal musika, euskal ikerketa eta jakituriaren gai guztietan jo ta ke diardu. Ez da geldo egoteko mutilla eta bere buruaren maixu izan nai dau gai askotan. Baña gaitasun guzti onen ganetik benetan miragarria da Bitoren urregorritzko gogo eta guramena fraide izateko Agustinoen artean. Bere gogo zorioenez beteko da elizgizona izanik Jainkoaren eta gizartearen serbitzari izateko. Eta Agustinoen bizibidea eta araudiak zintzo beteko ditu bere bizi osoan.

**1978an** argitaratu eban: “Euskera erro eta gara” ikerketa sakona euskeraren jatorriari bu-

ruz. Gaitasun berezia dauko ikerketak egiteko, batez be gizakiaren iragana eta etorkizunaren arakatzaillea izateko.

**Gaztetatik** Gerediaga Alkartearen bazkide egiten da. Idazlari ona izanik idazlanak argitaratzen ditu Eusko Gogoan, Zeruko Argian, Jakin, Txistulari, Karmel, ETB. Argi ta garbi adierazten dau gizon jakituna ta askojakiña, biotzbera ta ongillea. lurrari eta erriari lotutako gizona dala. Pentsalari sakona eta itzlari argi ta ugaritsua. Baleiteke ekintza aundirik burutu gabekoa, baña egunero sortutako arribitxiekaz eraikitako altxor txit ederra ta dotorea izango da bere ondasuna eta ondarea. Gure Bittor santua ta jakituna 2011 urtean il zan 86 urtekin. G.B.

